

Maite Alonso, presidentea
Begoña Cabria
Ainara Ibañez
Aitor Idigoras
Ana Marta Iriarte
Mari Tere Ojanguren
Idoia Pujana
Jone Unzueta
Eduardo Ubieta
Lourdes Villardón
Eva Blanco, idazkari teknikoa

IRIZPENA 21/04

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2021eko martxoaren 25eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Hezkuntza Sailaren titularitatekoa den ikastetxe bat eraldatuz Lanbide Heziketako ikastetxe integratua Fraisoro Eskola sortzen duen Dekretu proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak, lanbide-heziketako ikastetxe integratuen sorrera eranstean die, 11. artikuluan xedatzen du Gobernuak ezarriko dituela ikastetxe horiek bete beharreko oinarrizko baldintzak, eta horiek sortzea, baimentzea, homologatzea eta kudeatzea Administrazioen egitekoak izango direla haien eskumen-eremuan.

Abenduaren 23ko 1558/2005 Errege Dekretuak lanbide-heziketako ikastetxe integratuentzako oinarrizko baldintzak arautzen ditu

Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legeak II. Kapituluari jasotzen du lanbide-heziketako euskal sistema integratua.

46/2014 Dekretuak arautzen ditu Euskadiko lanbide heziketako ikastetxe bateratuak bere 8.1 artikuluan, non zehazten baitu ikastetxe horiek berriak izan daitezkeela eta baita ere lehendik daudenak eraldatuz, batuz edo banatuz sortu direnak.

II. EDUKIA

Dekretuak lau artikulu, bi xedapen gehigarri eta azken xedapen bat ditu.

Lehen artikuluak Fraisoro Eskola BHI, ikastetxe integratu bihurtzen da, 2021-22 kurtsotik aurrera.

Bigarren artikuluak aipatutako ikastetxea titulartasun publikoko lanbide-heziketako ikastetxe integratuen sarea sartzen du.

Hirugarren artikuluak Prestakuntza-eskaintzari buruzkoa eta beste zerbitzu batzuei buruzkoa da.

4. artikuluak ezartzen du Hezkuntza Sailak dekretu bidez argitaratuko duela ikastetxe eraldatuaren lanpostuen zerrenda. Bertan, LHko ikastetxe integratuan sartzen diren ikastetxe eraldatuko lanpostuak zehaztuko dira, eta ikastetxe horietako langileak berriro atxikitzeko prozesua egiteko arauak ezartzen ditu.

Lehen xedapen gehigarriak ezartzen du eraldatutako ikastetxeetako zuzendariak kargutik kenduko direla eta bigarrenak Batzorde Sozial bat sortuko dela.

Azken Xedapenak dio noiz sartuko den indarrean dekretua.

III. BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Euskadiko Eskola Kontseiluak, urtarrilaren 15eko Batzorde Iraunkorrean, 15/01 irizpena onartu zuen, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren titularitatekoak diren ikastetxeak eraldatuz Lanbide Heziketako 11 ikastetxe bateratu sortzen dituen Dekretu proiektuari buruzkoa. Irizpenean proposatutako ekarpenak 85/2015 Dekretuaren azken idazkeran sartu ziren.

Ondoren, Kontseiluak beste dekretu proiektu bati buruzkoa irizpena onartu zuen, Hezkuntza sailaren titularitatekoak diren lau ikastetxeak eraldatuz Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuak sortzen. (247/2016 Dekretua); berriki 18/08 Irizpena eman du, Andra Mari BHI buruzkoa, eta 18/12 Irizpena Izarraitz Lanbide Heziketa ikastetxe bateratua sortzen duena.

Informatzen ari garen dekretu-proiektu honek IES Fraisoro Eskola Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratu bihurtzen du.



Euskadiko Eskola Kontseiluak ez dauka oztoporik dekretu proiektuak planteatzen duen bezala ikastetxe bat eraldatzeko, betiere 46/2014 dekretuko eskakizunak betetzen badituzte ikastetxe integratu izateko.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2021eko martxoaren 25ean

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURUA